



JOXEAN TOLOSA TXAPELKETAREKIN «GUSTURA»

XXI. edizioko finalak herenegun jokatu ziren Amezketan; Artolak, Arratibelek eta Jaunarenak jantzi zuten txapela 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-09-14

VIII. URTEA 2.073. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Nieve leitzarria Cotobelloko helmugan. HITZA



Alegiarrek eta palestinarrek senidetze ekitaldian. HITZA

Alegia eta Alain errefuxiatu eremua senidetu dira

ELKARTASUNA Oiarzabal zinegotzia eta Aranburu herritarra Palestinan aurkitzen dira 4

PATXI CAMINOS
KIROLARIA

«Sekula ahaztuko ez zaizkidan une politak bizitu ditut»

ABALTZISKETA 24 orduko epean 12 aldiz igo eta jaitsi du Txindoki, marka eginaz. 7



HITZA

ESPAINIAKO VUELTAKO ETAPARIK GOGORRENA IRABAZI DU MIKEL NIEVEK

LEITZA Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulariak amaierarako zortzi kilometro falta zirenean jo du eraso eta bakarrik helmugaratu da 6

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

E Elkarrizketa**AITOR ESNAOLA** | Lurjabea

AHT» Epaitu egin behar zuten atzo, AHTren lanetako guarda batek jarri zion salaketarengatik; ez zen, ordea, epaiketarik izan, salaketa kendu egin baitzuen.

REBEKA CALVO

Aitor Esnaola AHTren proiektua egiteko desjabetutako Legorretako bizilaguna da. Atzo epaitu behar zuten Tolosako Epaitegian lanetako guarda batek jarritako salaketa medio, baina guardak berak atzera egin zuela jakinarazi zioten bertaratzera. Ez da egoera samurra, bere lurrak kendu eta txikitu baitituzte, «modu txarretan ari dira, umilatu egin gaituzte, zapaldu», dio. AHTren proiektua «egin behar delako» egiten ari dira bere ustez, oraindik ez baitu entzun egitasmoa justifikatzen duen argumentu sendorik, bere ustez kontu argi bakarra hauxe: «Naturarekin jolasten ari gara».

Segurtasun empresa bateko langileak jarritako salaketarengatik epaitu behar zintuzten atzo, duela urtebete edo mehatxu egin zeniola zioen eta, baina azkenean atzera bota da.

Horrela da bai, duela urtebete edo hasi ziren basoa botatzen eta orduan izan zen guardarena, atzera egin du ordea. Honek gauza baka-

«Proiektua herritarrak kontuan hartu gabe eta oso modu txarrean ari dira egiten»

rra uzten du agerian nire ustez, herritarren gainera nahi dutena egiten dutela. Proiektua horrela ari dira egiten herritarrak kontuan hartu gabe eta oso modu txarretan.

Atzokoa, hortaz, orain arteko jokaerari isla besterik ez da.

Orain arteko jokaera bera izan da. Aurretik, desjabetze prozedura, akten jasotzea... egiteko garaian, 2008an, ere ez gintuzten kontuan hartu. Akten jasotzea lurretan bertan egin behar zela esaten genuen, hor ikusten baita benetako balioa



ASIER IMAZ

«Nahi dutena nahi duten moduan egiten dute»

eta ez Donostian. Horregatik luzatu zen prozesua. Hori eta gero Donostiara deitu gintuzten, eta handik hona etorriko ginela esan ziguten. Dagokion ordezkaria etorri zen eta sinatu beharreko akta eman ziguten, dagoeneko idatzita zegoen akta, eta ez genuen sinatu. Hesola batzuk jartzeko eskatu ge-

nien, beraiek euren balorazioarekin etorri zirela eta beraz, guri ere balorazioa egiteko aukera emateko eskatu genien, balorazioa ez dugu guk egiten, gainera, baso elkartera joan eta handik tasatzailea etorri eta tasatu egiten baitu... Horraino iritsita zentzuz jokatzeari basterik ez genien eskatzen. Eskerak egiteko esan ziguten, eta egin egin genituen. Duela urtebete inguru hasi ziren lurra seinalezatzen, eraztun modukoa egin zuten. Guk, orduan, beno «hau da lehen pausoa» pentsatu genuen, «gero

deituko digute...». Beraiek beraie-na seinalezatu dute, guk gure balorazioa egingo dugu... eta hortik adostuko dugu zerbait.

Baina ez zen horrela izan...

Goiz batean hasi eta ia dena bota zuten. Botatzen ari zirela joan eta bi langileei nagusiarekin hitz egin nahi nuela esan nien, baina guarda etorri zen, salaketa jarri zidan hori. Gure lurren balorazioa oraindik ere egin gabe zegoela esan nion eta arduradunarekin hitz egin nahi nuela. Tipoa nagusiarekin hitz eginen saiatu zen eta hitz egitea lortu

zuenan itzuli eta lur horiek desjabetuta zeudela esan zidan, nik hori banekiel eta bi urte zirela kobratu nuela. Arduradunarekin hitz egin nahi nuen, besterik ez. Astakeria al da? Baina bera ia mezu batekin etorri zen, pareta bat eraikitzen hasi zen. Esan nion gauza bakarra da beste inor joaten ez zen bitartean, bera, guarda, izango zela bertan

«Guardarekin izandako arazoa eta gero, hurrengo egunetan oso modu txarretan aritu ziren»

pasatzen zenaren erantzule, eta horixe da leporatzen zidana: gertatuko denaren erantzule bera egiten nuela. Hortik gutxira iritsi zen Ertzaintza, dena azaldu nien, eta oldartu egin ziren; ezin nuela ez dakit nondik aurrera pasa... Orduan hasi ziren esatennik langileei mehatxu egin niela.

Duela bi urte bere baserri inguruko lurretan zundaketa lanak egiten ari ziren Euroconsult Norteko langileekin izandako gertakariarengatik ere kartzela zigorra eta isuna eskatu zuten. Zertan da hori guztia?

600 bat euroko isuna jarri zidaten. 300.000 eurotik gorako isuna eskatzen zuten eta baita 4 urteko espetxe zigorra ere, ezerezean geratu zena. 6.000 bat euro daude gordailuan, kalte-ordainarengatik, baina bi aldeek frogak azaldu behar ditugu: besteek azaldu dituzte eta guk beste topografo, biologo... batzuekin kontrastatu behar dugu guztia. Possible da gordailuan dagoen hori bere horretan mantentzea, edota zati bat bueltatzea.

Epaiketez eta salaketez haratago, jasan duzun eta jasaten ari zaren presioa ere nabarmentzen duzu. Azken gertakariaren ondotik isun ugari jarri zizkizuten, esate baterako.

Guardarekin izandako arazoa eta gero, hurrengo hamar eguneko oso txarrek izan ziren, isun pila bat jarri zizkidaten errepidean hitz egiten egotearengatik, abiadurarengatik... Oso modu txarretan aritu ziren.

AHTren proiektua egiteko darabilten modua salatzen duzu, lurjabeek emandako tratua... Nola ari zara bizitzen guztia?

Ez zait iritsi proiektua justifikatu duen ezer. Ez dute justifikatzen, egin egin behar da eta kito. Naturarekin jolasten ari gara. Gure bailara oso lasaia izan da beti eta orain aztoratuta dago erabat. Lehen ohar-kabeen pasatzen zitzaizkidan gauza asko orain bizi egiten ditut; lasaitasun hori, bizimodu hori. Honek bizimodua goitik behera aldatu dit eta baldintzatu egiten dit erabat. Bizilagun guztien bizimodua aldatu dela esango nuke. Langileen jarrera ere lotsagarria da. Euren jarrera zapaltzekoa da. Nahi dutena nahi duten moduan egiten dute.

**TOLOSAKO UDALA****IRAGARKIA**

Gobernu Batzarrak, 2010eko uztailaren 27an egindako bileran, hasierako onespenea eman zion "14,3 Berazubi Ikastetxea" azpiesparruaren Hirigintzako Egikaritze Hartzarenaren proposamenari, TOLOSA LOTZEN, S.A.k izenpeturik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenean egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldiaren barruan.

Tolosan, 2010eko irailaren 7an. ALKATEA.

ALOKAIRUA

■ **Baserri edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu ondorengo telefonoz zenbakira: 634 45 9110.

Iragarki laburrak

@ XII. Hitza Argazki Lehiaketa. Udan ateratako argazkiekin lehiaketan parte har dezakezu. Gustukoena aukeratu eta argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbidera bidali besterik ez duzu egin behar, eta zure datuak eta argazkiari buruzkoak jarri. Webgunean ditugu guztiak ikusgai: www.tolosaldeko hitza.info



Jaien amaiera giro ezin hobean

ZIZURKIL • Amaitu dira Zizurkilgo Elbarrena auzoan jaiak. Herenegun izan zuten azken eguna, eta azkena izanagatik ere, egun osoan ederki gozatzeko modukoa izan zen. Sardinak eta sagardoak dastatuz ekin zioten zizurkildarrek egunari, eta mokadutxoak hartzen zuten bitartean motozerra erakustaldia ikusteko aukera ere izan zuten. Arratsaldean dantzarekin batera Melokotoiari agur esan zioten, baina festa giroak gauean ere jarraitu zuen bertso saioarekin eta DJ Bullek jarritako musika sortarekin. SARA GOMEZ

Tolosaldea bisitatu dutenen kopurua nabarmen igo da uda honetan

Turismoa » Uztailean eta abuztuan 8.326 bisitari izan ditu eskualdeak, pasa den urtean garai horretan baino %120 gehiago.

INIGO TERRADILLOS

Euskal Herriko eta Gipuzkoako joerari jarraituz, datu onak utzi ditu turismoak uda honetan eskualdean. Pasa den urtearekin alderatuz bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora, eta iguera hori Tolosako Trianguloko eta Larraitzeko turismo bulego berriei edota Topic Txotxongiloen Nazioarteko zentroari zor zaio hein handi batean. Eskualdeko turismo alorreko ordezkariak «oso pozik» agertu dira datuekin, eta ildo berean lanean jarraitzeko beharra nabarmendu dute.

Uztailea eta abuztuko datuak aintzat hartzen baditugu, 8.326 bisitari gerturatu dira Tolosaldeko hiru informazio bulegoetara, Tolosako Santa Maria plaza eta Trianguloko bulegoetara eta Larraitzeko bulego gora, alegia. 2009an, epe horretan baino %120 gehiago, iaz 3.781 bisitari izan baitziren. Uztailean nabaritu da bereziki iguera, 3.467 bisitari izan baitira, pasa den urtean baino %213 gehiago. Abuztuko iguera ere handia izan da, eta ia 5.000 izan dira eskualdean ezagutzera gerturatu direnak.

Gehienak bertakoak

Bisitarien jatorriari dagokionez, pasa den urtean bezala, Euskal Herriko etorritakoak izan dira gehienak. Gipuzkoarrak gailendu dira, eta hauen atzetik kokatzen dira bizkaitarrak.

Aurreko urteetako datuak mantenduz, bigarren postuan kataluniarrek leudeke, eta horien atzetik,



Olatz Illarregi, Nerea Letamendia, Idoia Otegi eta Karlos Irazu, udako bisitarien datuak aurkezten, atzo. I.T.

Madrid, Valentzia, Andaluzia eta Gaztela eta Leonetik etorritakoak. Bestalde, Frantzia, Iberoamerika edota Alemaniatik, besteak beste, etorritakoen kopurua ere garrantzitsua izan da, iguera guztietan nabaritu delarik.

Eskaintza «aberatsa»

Eskualdeko turismo teknikarien eta zinegotzien arabera, eskualdean eman diren hainbat faktorek arrazoitzen dute iguera hori: «Baretik, bi turismo bulego berri egon dira martxan udan, bata Tolosako Trianguloko plazan, eta bestea Larraitzen, eta horietara jende kopuru handia hurbildu da; bestetik, eskualdeko eskaintza zabalagoa eta aberatsagoa izan da aurten beste urteekin alderatuta, batik bat Topic, Santa Maria eliza eta Larraulgo museoaren irekierari esker, eta horrek ere lagundu du aurten guzterako ohi baino jende gehiago erakartzeko orduan», azaldu du Olatz Illarregi eskualdeko turismo sailararen arduradunak.

Eskualdeko eskaintzari begirata, Gorrotxategi museoak izan ohi duen harrera ona errepikatu da beste behin. Iazko udan 1.031 bisitari izan bazituen, aurten 1.419 lagun bertaratu dira. Aranburu jauregian, berriz, Edurne Pasabanen erakusketa egon da, eta 600 lagun inguruk bisitatu nahi izan dute. Bestalde, estreinakoz Santa Maria eliza ireki dute arratsaldeetan bisitatu ahal izateko, eta ekimen honen ere «harrera ona» izan du, 315 bisitariarekin. Topic zentroaren lehen uda izan da hau, eta 3.693 bisitari izan ditu, eta DINA7 herritarrez osaturiko elkarteak kudeatu duen Larraulgo ekomuseora 232 lagun joan dira, tailerretan ere parte hartuz.

Bisitarien kopuruak bezala, okupazioaren ere gora egin du, baina ez hain modu nabarmenean. Dena den, eskualdean hotel berri bat gehiago dagoela eta horrek ohe kopurua igo duela kontuan izanik, gaualdi kopurua «nabarmen» igo dela esan daiteke.

Kontsumoan ez da igoerarik nabaritu

Bisitari ugari izan dira eskualdean, baina hori nabaritu al da dendetan eta tabernetan? Bada, ostalari eta merkatari elkarteek azaldu dutenaren arabera, iguera hori ez da nabaritu erostetetan eta kontsumizioetan. Abuztuan ireki duten jate-txeetako jabeak, ordea, gustura daude, «jende asko» izan baitute.

Jarraipena ildo beretik

Nerea Letamendia turismo zinegotzia «oso pozik» azaldu da udak emandako datuekin, eta ildo beretik lanean jarraitu beharra dagoela adierazi du: «Eragile guztien artean Tolosaldeko eskaintza aberatsagoa egin dugu, eta horrek bisitarien igueran zerikusi handia izan du, beraz, horretan jarraitu behar dugu lanean».

» DATUAK

Bisitariak

2009.

- Uztailea: 1.108.
- Abuztua: 2.673.
- Denera: 3.781.

2010.

- Uztailea: 3.467.
- Abuztua: 4.859.
- Denera: 8.326.

Bisitarien jatorria

- **Euskaldunak.** Eskualdea bisitatu duten gehienak izan dira.
- **Kataluniarrek.** Nabarmendu egin dira aurten ere.
- **Frantziarrak.** Hirugarren postuan Frantziatik etorritakoak leudeke.


Okupazioa

Nekazaritza

- 2009: %55.
- 2010: %55,11.

Hotelak

- 2009: %64.
- 2010: %66,28.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Asimilazioa oztupo denen



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbol jokalaria

billi ta buelta, 2."B" mallara igo giñen maiatzen bukaeran jokatutako azken partidun. Erabakiorrasuertatu zen estadioa bete zuen 4.500 ikuslen bultzada eta presioa. Kirolari modun urtetan in doten sakrifizioa sarritue somatu nun momentutako bat izan zen. Jakiñe, lorpen honen ondoren aste osoa ospakizunetan ibilli giñen; ongietorrik, ekipoko otorduk, juergak... nekagarrie. Gogoakin eta ilusioekin bueltatu nitzen etxea!

Denboraldi berrire beide etxe inguruko taldeen batea bueltatzeko erabakie hartuena nun (aukera politen bat euki ezkeo). Gañea, indako urte earra ikusita nahiko baikor neola ezin ukatukot. Beño krisin atzaparra esparru guzita aiutue da; sekulen beño zallegoa da nahi den taldeen baldintza ekonomiko onatan fitxatzea. Azken urtetako gisen uda korapillatsue bizitu dot, nahi bezela disfrutatzea eragotzi ditean gorabehera gehitxokin. Kontuk kontu, etxealdetik sortu zitzaizkien eskeintzak Teruelek indakoa alden txarrak zinez, urte betez berriatzea besteik enun euki.

Gauzek hola lehen malla da probatu gabe geldittuko naizen kategori bakarra. Izane Preferenten bi urtez, hirugarrenean lau urtez eta Bigarrenean urte betez aittu ondoren Bigarren "B" mallan debutatu berri baitot. Jakiñe da kategoriz igo ahala maila hobe del, beño batetik bestea inork pentsatu dezakezen beño alde gutxio eottek harrittu nau.

Nahi bezin ongi ez badare hasi ga partidutan. Errege Kopako kanporaketa bat penaltitan irabazi ondoren Real Union-ek kanporatu giñeuden azken minutun. Ligan, berriz, bi partidutan puntu exkax bat atea du. Begibistekoa; balantze kaxkarra. Behintzat minutu guzik jokatuz hasi naiz eta gol pare bat sartzeko suertea euki dot. Sentsazio onakin nau, lesioak errespetatzen banaudea ongi ikusten naiz.

Bukatzeko, astelhehenen gertatutako ezbehar tragiko bat attatu nahi dot; Jordi Pitarque, 23 urteko futbolari eta laune hil da bihotzekoak jota. Oain hiru urte ekipobereen aittu giñen Tarragonan. Holako gauzek pentsakor eta hitzik gabe uzten due bat, joa. Ze pena doten azkenaldin ez ikusie. Jokalari eta taldekide paregabea zen, soñuik atezten ez tzen hoitakoa. Halaxe joan da. Barren-barrenean gordeko zattot nere oroitzapenen.

Palestinako Alain errefuxiatu eremuarekin senidetu da Alegia

Alegia » Ekitaldian izan dira Joxe Manuel Oiarzabal zinegotzia eta Jon Aranburu Biladi Hadi elkartasan brigadako kidea.



Joxe Manuel Oiarzabal Alegiako zinegotzia izan da Palestinan, ordezkarri. HITZA

GARI BERSALUZE / LEIRE VENTAS

Egunotan Palestinan dabilta Joxe Manuel Oiarzabal eta Jose Manuel Oiarzabal alegiarrak. Lehenengoa herrialde hartako egoera bertatik bertara ezagutu asmoz antolatutako Biladi Hadi brigadako kidea da. Bigarrena, Alegiaren eta Alain errefuxiatu eremuaren arteko senidetzea sinatzeko Udal ordezkarri gisara joan da Palestinara.

Herenegun egin zuten ekitaldia, Alainen bertan, bertako errefuxiatu eremua kudeatzeaz arduratzen den Palestina Askatzeko Erakundearen egotitzan. Palestinarren ordezkarri moduan Derghan Esnaelek sinatu zuen senidetze agiria, Alaingo errefuxiatu eremua kudeatzeko batzordearen lehendakariak.

Bai Joxe Manuel Oiarzabalek eta bai Derghan Esnaelek nabarmendu zuten, bi herriertzat garrantzitsua bezain pozgarria daseñidetzea. «Elkarren berri izateko, batak besteari askatasunaren bidean laguntzeko eta aurera begira bi herrien arteko harremanak sendotzeko lehen urratsa izan baita».

Alain errefuxiatu eremua Zisjordanian dago, Nablus hirian.

BILADI HADI, ELKARTASUNA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Euskal Herriatik abiatu eta azken egunotan Palestinan batetik bestera dabilen Biladi Hadi brigadak ere, Alegiak senidetzearekin lortu nahi duena du helburuen artean: elkartasuna erakustea, egoera bertatik bertara ezagutzea, eta itzuleran Israelen aurkako boikot kanpaina ahalik eta gehien gizarteratzea, «horretarako arrazoiak milaka baitaude, egunero ikusten ari garen bezala. Elkartasuna adieraztea ondo dago. Israeldarrek armak dituzten arren, gainerakook bihotza dugula eta mundua beraiekin dagoela sentiarazi nahi diegu palestinarreri, baina hori ez da nahikoa. Posible da nazioartetik benetan laguntzea palestinarreri, mendealdeko herrialdeek eta erakundeek erakusten duten utzikeriari aurre egin: Israeli benetan min egingo dion boikot kanpaina olatu handia bihurtuz».

Jon Aranburu alegiarrarekin batera, beste hamasei laguneko taldea helburu horrekin joan zen Palestinara. Musikariak, dantzariak, hainbat hedabidetako kazetariak edo ikasle mugimenduko eta gazte mugimenduko kideak osatzen dute brigada, bakoitzak bere esparruko palestinarrerekin harremanak sustatzeko eta zubiak eraikitzeko.

Israel, ordea, lan hori ez du batere gustukoa, eta oztupoak jartzen ditu. Azken hilabeteotan brigada hau antolatzen aritutako Martxeko Diaz kazetariari, esaterako, ez zioten Israelen sartzen utzi, eta Jordaniara itzularazi zuten mugan.

Brigadako gainerako kazetariak, horri erantzunez, kazetaritza lana areagotzea eta ahalegin handiagoga egitea erabaki zuten, eta irratietan, egunkarrietan, aldizkarietan edo webguneetan lanean ari diren kazetariak direnez, eguneroko kronikak, bideoak eta elkarrizketak *biladihadi.wordpress.com* blogean argitaratzen dituzte.

Lorategi ederra eduki ahal izateko ikastaroa antolatu dute

Belauntza » 'Nola zaindu lorategia' du izena eta urriaren 18tik azaroaren 22ra arte izango da; izena emateko epea zabalik da.

ERREDAKZIOA

Lorategi bat osatzen duten elementu eta izaki desberdinak ezagutzeko Kutxaren bitartez ikastaroa antolatu dute Belauntzan. Saioak astelhehen eta asteazkenean izango dira, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Kutxan kontu korronte bat duten pertsonak hartu ahal izango dute parte. Hala, izena emateko epea zabalik dago jada, eta hilaren 18ra arte luzatuko da.

Ikastaroaren prezioa 41 eurotara da, eta internet bidez www.kutxasocial.net/helbidean, nahiz telefonoz, 902 54 00 40 zenbakira deituta (astelheenetik ostiralera,



Lorategi diseinatzen eta osatzen erakutsiko diete belauntzarrei. HITZA

08:00etatik 14:30etara) eman daiten izena.

Jardunaldien helburua da lorategia osatzen duten soropila, zuhaixka, zuhaitz eta loreak lantzeko teknikak azaltzea. Urriaren 18an emango diete hasiera eskolei, eta azaroaren 22an amaitu.

Parte-hartzaileek osagai bako-

tzaren hazkuntza lanak egingo dituzte, eragiketa bakoitza egiteko unerik egokiena aukeratzen ikasiko dute eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezagutuko dituzte. Horrez gain, izurrite eta gaixotasun arruntenak identifikatu dituzte, biologikoki horiei aurka egiteko moduak jorratu.

47 lurpeko aparkalekuren zozketan parte hartzeko aukera Villabonan

ERREDAKZIOA

Larrea auzoko 47 lurpeko aparkalekuren herri jabari gisako kontzesiorako, izen-emate epea ireki dute. Hauek, lehen deialdian eman gabe geratu zirenak dira. Gainera, horietatik bi plaza mugikortasun urria duten pertsonentzat dira. Kontzesioa 75 urtetarako izango da.

Apirilaren 7an eginiko bilkuran onartu zituen baldintzak Udaltzako. Honen arabera, esleipena zozketa publiko bitartez egingo da. Eskerak aurkezteko epea hilaren 22an amaituko da. Astelheenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara egin daiteke hau udaletxeko Erregistro Orokorrean. Honenbestez, deialdian parte hartzeko eskaeraren inprimakiaren eredu udaletxeko bulego orokorretan emango dira.

«Alfabetizazioa eskaini nahi dugu, euskarazko hedabideak irakurri eta ulertu ahal izateko»

MIKEL UZKUDUN Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria

Tolosaldea » Aitzol Udal Euskaltegiak 2010/11 ikastarorako matrikulazio epea zabalik izango du, irailaren 17ra arte.

ANESANZ

Aitzol Udal Euskaltegiak 28 urte daramatza martxan. Duela 28 urte sortu baitzuen Eusko Jaurilaritzak euskaltegi publikoak sortzeko legea. Hainbat egoitza izan ditu ordutik, egungo Topic lehena, Plaza Berriko Abastos hurrena, eta Rondilla kalean dagoen Gorosabel Berrria azkena. Bertan lanean ari diren gehienek lehenago ere ematen zituzten euskara klaseak; gau eskoletan, barnetegietan e.a. Beraz, Aitzol Udal Euskaltegian dagoen irakasle goaren multzo handienak 30 urteko esperientzia badu.

Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria, Mikel Uzkudun (Iruran, 1955), Tolosaldeko euskaltegiaren hastapenetik dago bertan. Ikasturte berria hastear dela, begirada atzera bota du.

Zenbat ikasle igaro dira urte hauetan zehar Aitzol Udal Euskaltegitik?

Milaka ikasle pasa da. Hasiera hartan, 800 ikasle izatera iritsi ginen. Eta urte luze guzti horietan ikasle kopuruak gorabehera bazuk izan baditu ere, azken bost ikasturteetan, ikasle kopurua finkatu egin dela esan dezaket, eta 225-250 ikasletan finkatu da.

Nik uste dut, gizarteak izan duen bilakaerak ere eragina izan duela. Garai hartan ez zen D eredurik, eta ikastetxeetan gaztelaniazko A eredu hor zegoen. Gaur egun, Tolosaldeko gizartearen

«Euskarazko produktuak gutxi kontsumitzen ditugu, produzitzen dena ulertzen ez dugulako»

«Gaur egun, gizarte gehiena euskalduna da; euskaldun ateratzen dira ikastetxeetatik»

«Nahiz eta euskaldun gehiago egon, erabilera aldetik ez da nabaritzen. Erabilera dago gako»

gehiengo euskalduna da; euskaldun ateratzen da ikastetxeetatik. Hor geratzen den euskaldun du gabeko ikasle potentzial hori, bere garaian ikasten hasi, eta arrazoi batengatik edo beste batengatik ikasteari utzi ziotenak dira, eta azken boladan atzerrikak datozkigun ikasleak ere baditugu.



ANESANZ

ETOR DAITEZELA, NORBERAREN HIZKUNTZAN ALFABETATZERA

Euskarazko Euskal produktuak gutxi erabiltzen dira; Euskaldunok ere ez dugulako oso ondo ulertzen euskaraz produzitzen den hori. Alfabetatu gabeko euskaldun asko geratzen da oraindik Tolosan eta inguruetan. Ikasturte berria hastear dela, hauentzat eskaintza berezia egin nahi dute Aitzol Udal Euskaltegitik. Bertan, erritmo lasai batean alfabetatzeko aukera eskaintzen dute.

Euskaraz alfabetatzeko aukera izan ez dutenei zuzendu nahi zaie Mikel Uzkudun, Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria: «Etor daitezela, norberaren hizkuntzan alfabetatzera. Oinarrizko alfabetizazioa eskaini nahi diegu, euskarazko hedabideak irakurri eta ulertu ahal izateko».

Aukera ezberdinak daude, urte osoko ikastaroak egiteko beharrik gabe. Euskaraz hitz egin bai, baina euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko aukerarik izan ez duten haientzat, ikastaro motzagoak ere antolatzen dituzte. Euskaraz trebatzeko aukera paregabea, lagun berriak egiteaz gain.

Zerk bultzatzen du jendea gaur egun euskara ikastera?

Lehen euskaldun sentitzen zirelako etortzen ziren ikasleak euskara ikastera. Euskara ikasi nahi zuten, euskara erabili, euskaraz bizi nahi zutelako. Gaur egun aldi, lanposturako euskara jakiteak ematen duen abantailak bultzatuta etortzen dira asko. Bilakaera horren ondoren, egonkortu egin da jada, eta orain denetik pixka bat dago.

Eta badirudi berritoe ere berreskuratzen ari dela hasiera hartako gabeko ikasle potentzial hori, bere garaian ikasten hasi, eta arrazoi batengatik edo beste batengatik ikasteari utzi ziotenak dira, eta azken boladan atzerrikak datozkigun ikasleak ere baditugu.

Zein garrantzi, zein eragin du zuek egiten duzun lanak?

Guk garrantzi osoa ematen diegu.

Guk egiten dugunarekin, ikasleei laguntza txiki bat eskaintzen diegu. Ondoren, guk erakusten diegun hori kanpoan erabil dezaten, osatu dezaten. Behin ikasita, norberarena da euskaraz hitz egitearen erabakia. Euskaraz komunikatu nahi izatea, hizkuntza bere egitea. Guk mezu hori helarazten diegu ikasleei.

Euskara ikasten laguntzen diegu, eta ikasten irakatsi ere egiten diegu, baina ondoren beraien aldetik beste jarrera bat behar du, erabilera hori bultzatzearena. Inguru gainera ezin hobea da hizkuntza bat ikasteko. Leku askotan eta askotan euskaraz egin dezaket. Komunikabideen aldetik aukera guztiak dituzte; liburuak, hedabi-

deak, zinea... inguru euskalduna aurki dezakete, nonahi.

Gure pausak garrantzi handia du, jende hori euskara erabiltzera bultzatu behar dugulako. Ikasteaz gainera, euskara maitatzera.

Erabilera horretan, mintzalagunaren proiektua lagungarria da ere, ez da hala?

Bai, noski. Udaletxetik sortutako ekimena den arren, Udal Euskaltegiko jendeak eraman du aurrera. Ikasleei jartzen zaion beste bitarteko bat da. Astean behin, ordu bat elkartzan dira euskal hiztun batekin, atsegin dutena egiteko. Bizpahiru pertsonetako taldeak izan ohi dira, eta martxan daramatzan hiru urteetan, proiektuak ongi funtzionatu du.

» 2010-2011 IKASTAROA

- **Matrikula egiteko epea.** 2010eko irailaren 1etik 17ra.
- **Erritmoak.** 2010eko irailaren 20tik 2011ko ekainaren 17 arte.
- **Bulego ordutegia.** Goizez: 09:00 - 13:00
Arratsaldez: 16:00 - 19:00
Ostiralean: 09:00 - 14:00
- **Laguntzak.**

Tolosako udalak % 50 aurrez aurrekoei eta % 75 autoikaskuntzako, eskatutako baldintzak betetzeko.

Gainontzeko udal gehienek ere badituzte laguntzak.

HABEren mailetako azterketak gaituztuz gero ere, euskaltegiari ordaindutako matrikula (%100 arte) berreskuratzeko aukera bada, baldintzak beteta.

Eskaintza

- **Euskalduntzeko eta alfabetatzeko maila guztiak.** Iraupen labur eta luzeagoko ikastaroak aukeran.
- **Aurrez aurreko taldeak:** Astean 10 ordu, asteleheneetik ostegunera.
- **Modulu konbinatuak.**
- **Autoikaskuntza.** Tutore baten laguntzaz.
- **Azterketak prestatzeko aukera.**
- **Ikastaro bereziak, eskaerari egokituta.**

Ikasi nahi baina horretarako astirik ez dutenei, zer esango zenietek?

Egunero klaseetara etortzerik ez dutenei, autoikaskuntzaren aukera ere badela esatea gustatuko litzaidake. Klasera etorri beharrik gabe, euskara ikasteko aukera oso ona baita. Hamabost egunean behin tutoretza bat baino ez dute behar. Multimedia eta paperezko euskarriren laguntzaz beren kabuz lan(du) dezakete. Gainera, astean ordu bete eskaintzen zaie mintza praktikarekin ahal izateko. Ordutegi malguak dira, autoikaskuntza edonoren eskura egon dadin.

Zuk gertutik ezagutzen duzula, zein balorazio egingo zenuke euskal hiztun kopuruaren inguruan?

Jakitun asko dago gaur egun. Euskara dakitenei kopuruak gora egin du. Estatistikek esaten dutelako, eta euskaltegitik ere, urtetik urtera euskaldun gehiago iritertzen direlako. Nahiz eta agian estatistikan agertzen ez diren, guretzat komunikazio arin bat eramateko moduan daudenak ere euskaldunak dira.

Dena dela, nahiz eta euskaldun gehiago egon, nik uste duthorierabilera ez dela nabaritzen. Erabilera, gabezia handi xamarra dago. Jarrera kontua da gehienbat. Tolosan gazteen ehuneko oso handiak euskaraz badaki, zergatik ez hitz egin? Erabilera dago gako. Gizarteak euskara eskatzen duela ikusiko balitz, hedabideek ere gehiago erabiliko lukete.

Beharbada, berandu baino lehen, etorriko da gizartearen aldaketa hori; espero etortzea.

Joxean Tolosa Txapelketan Artola, Arratibel eta Jaunarena txapeldun

Pilota » XXI. edizioa ere arrakastatsua suertatu da. Pilotalekua jendez bete zen eta partida gogorrak jokatu zituzten pilotari gazteek.

ERREDAKZIOA

Igande arratsaldean jokatu ziren XXI. Joxean Tolosa Txapelketan finalak. Urtero legez, izen handiko txapelketa ikustera jende asko gerturatu zen. Zazpi-Itturri pilota elkarteak antolatzen duen txapelketan, eskuz banaka jotzen dituzte partida guztiak. Hiru pilota partida izan ziren; kadete, gazte eta nagusien mailakoak.

Aurtengo finalera, kadeteen mailan, Artola alegiarra eta Tolosa anoetarra iritsi ziren. Gazteen mailan, Jaka lizartarra eta Arratibel ataundarra izan ziren. Eta Nagusien mailan berri, Jaunarena leitzarra eta Onsal aresoarra zi-



Finaleko partidak ikustera jende asko gerturatu zen. SARA GOMEZ

ren finalera iritsitakoak. Hala ere, Onsalok ezin izan zuen parte hartu, bezperatan, entrenatzen ari zela, ezkerreko eskuko behatz lo-

dian min hartu zuelako. Ondorioz, antolatzaileek, Hazparneko Etxeberri pilotaria sartu behar izan zuten finaleko partidari. Honek, On-

saloren aurka galduta zuten azken partida. Onsalorena penaz hartu zuten berria izan zen Xalton Zabalen hitzetan.

Artola, Arratibel eta Jaunarena
Artola eta Tolosaren arteko partidari, 18 eta 10 irabazi zuten Artolak. Tolosa oso urduri hasi zen eta alde oso handia ateratzen zion Artolak. Alegiarrak urtebete zaharragoa izaki, alde nabaria izan zen.

Gazteen mailan, Jakak 12 tanto eta Arratibelek 18 egin zituen. «Oso partidagorria jokatu zuten. Jakak lehertuta bukatu zuten» Xalton Zabalen hitzetan. Arratibelek bikain jokatu zuten.

Nagusien mailan, Jaunarenak irabazi zuen partida, Etxeberri 12 tantoan utziz. Leitzarra, 5-11 galtzen joan zen eta bi tanto suertean handiarekin egin ostean, buelta eman eta partida irabaztea lortu zuen. Hazparneko pilotariak, zeukan guztia eman zuen arren ezin izan zuen garaipena eskuratu.

Xalton Zabala Zazpi-Itturriko arduradunaren esanetan, antolatzaileak «oso gustura» geratu dira XXI. Joxean Tolosa Txapelketarekin. Azken urteetan bezala, «jende oso ondo erantzun du, pilotalekuko eserleku guztiak bete ziren». Pilotari asko «eskualdekoak izateak, eragina du». Materialerik beldurra izan bazuten ere dena ongi ateratzen.

Mikel Nievek irabazi du Vueltako 16. etapa

Txirrindularitza » 26 urteko gazte leitzarrik profesional mailako lehen garaipena eskuratu du Cotobelloko helmugan.

ERREDAKZIOA

Mikel Nieve (Leitza, 1984) gazteak atzo, Espainiako Vueltako 16. etapa irabazi zuen. 2008an egin zuen debuta Orbean, eta iaz Euskaltel-Euskadirekin fitxatu zuen.

181,4 kilometroko etapa gogorri aurre egin behar izan zioten txirrindulariek. Xixonetik ateratzen



Mikel Nieve, helmugara iritxi aurreko azken metroetan. HITZA

eta hirugarren mailako mendatearen ostean, lehen mailako hiru mendate igo behar izan zituzten. Talde lan bikainaren ostean, 118 kilometroan, Orozek, Txurruka eta Nievek, ihes eginda zihoan 10 laguneko taldea harrapatzea lortu zuten.

Oraindik bi mendate falta zitzaizkien igotzeko. Ihes egindako taldean erasoak hasi ziren eta gero eta gutxiago ziren aurrean gertatzen zirenak. Helmugarako 30 kilometrorra Txurruka, Nieve, Luis Leon Sanchez, De Weert eta Peterson zeuden lasterketa buruan. Helmugarako 8 kilometro falta zi-

rela, leitzar gazteak eraso jo zuen eta Cotobelloko marra pasa bitartean bera izan zen lasterketako burua. 4:51:59ko denbora behar izan zuen etapa amaitzeko. Atzetik banaka-banaka sartu ziren gainontzeko txirrindulariak. Vueltako lider berria Joaquim Rodriguez da eta 35 segundo ateratzen dion Nibaliri. Mikel Nieve, sailkapen orokorrean, 11. postuan dago liderrarengandik 6 minutu eta 30 segundora. Izugarria izan zen atzokoan Mikel Nievek lortu zuen garaipena. Gaur merezitako atsedean eguna izango dute. Vueltan taldeak irabazi duen hirugarren etapa izan da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

«Inguruko jendearen babesik gabe, ezin duzu horrelako erronka bat bakarrik egin»

PATXI CAMINOS » Kirolaria

Txindokiko marka »

Patxi Caminosek 12 aldiz igo eta jaitzi du eskualdeko mendirik altuena, 24 orduren bueltan.

ASIER IMAZ

Hirugarren saiakeran bai. Patxi Caminosek (Tolosa, 1973) hobetu du azkenean Iker Karrera amezketarraren marka bikaina. Herenegun amaitu zuen erronka Abaltzisketan bizi den tolosarrak; lagun, ezagun eta etxekoan txalo artean.

Marka egiteko gogoia izango zenuen, baina hirugarren saiakera zela kontuan hartuta, istorio honenkin amaitzeko gogoia ere bai, ezta?

Bigarren saiakera egitera joan nintzenezan zorte txarra eduki nuen, erori egin bainintzen. Hirugarrena prestatzeko hasieratik hasi behar izan nuen; bolada txar bat pasatu nuen baina berriro forma segituan hartu nuen. Orain lortu dut eta gustura.

Denbora gutxi igaro da bigarren saiakeratik honaino, bi hilabete eskas. Orduan ere sasoi onean zinenaren seinale.

Nire ustez, agian orain baino hobeto aurkitzen nintzen orduan. Egin ditudan entrenamenduak ikusita, lehen sentsazio hobegoekin ibili nintzen. Errezelo hori daukat.

Proba larunbatean hasi zen bostetan. Beldurra, presioa... zer sentitu zenuen?



Txindokiko erronka amaitu ondoren, Patxi Caminos senide eta lagunез inguratutik. HITZA

Beldurrik gabe irten nintzen. Egun egokiarekin erronka burutzeko gai nintzela bai bainekien; entrenamendu onak eginda nengoelako. Goran fresko egin arren eguraldi bikaina eduki nuen, ibiltzeko inongo arazorik gabe ibili nintzen, eta alde horretatik, ez dago baldintza hobegorik eskatzerik.

Lehen orduetan, zer zion zure gorputzak?

Lehen itzulak ordu t'erdiko erri-

moan egingenituen. 54 minututan igo ginen lehen bi bueltetan. Seigarrenera arte ondo ibili nintzen, baina zazpigarrenean, ez dakit zer gertatu zitzaidan: behera etorri nintzen. Ordubete eta 16 minutu behar izan nituen igotzeko. Denbora piloa galdu nuen eta gero berreskuratu ezinik ibili nintzen. Nire gustuko erritmoa ezin aurkitu ibili nintzen.

Noiz gertatu zitzaizun hori?

Goizeko 05:00etan, 12 ordu nenbela. Iturrira bitartean zerbait nabaritu nuen: taupadetan azpitik nihoan, 135-140 tarte horretara ez nintzen iristen; erritmoa jaitzi egin nuen eta denbora galtzen hasi nintzen. Gero, Tximistan, segidan nabaritu nuen hankak ez zirela behar bezala gora joaten. Nolabait puntara heldu nintzen eta han jan ontzaren, pixka bat gorputza erreku-peratzea lortu nuen.

Burua ez al zitzaizun oker-bidean hasi orduan?

Gauza on bat banuen: aurrez denbora dezente aurreratu nuela. Aurretik lortu nuen denbora poltsa horrek lasaitasuna eman zidan. Banekien sufritzea tokatuko zela baina bukatzeko kapaz ikusten nintzen. Hurrengo itzulian igoera 10 minutu azkarrago egin nuen eta erreku-peratzen hasi nintzen. Hala eta guztiz ere, gerora, entrenamenduetako erritmoa hartu ezinik ibili nintzen.

Igandean, 10:00ak inguruan,

marka hautsiko zenuela argi ikusten zen.

Denbora guztian nahiko kontrolatuta eduki genuen kontua. Egingo nuela ikusten nuen baina entrenamenduetako denborak ikusita, beste itzuli baten aukera ere horrenguen; baina hamargarren bueltan, behera etorri ginenean, sei ordu inguruko tartea genuen eta 13 egitera joatea baino, 12 ziurtatzea erabaki genuen. Baina nire helburua 13 itzuli egitea zen.

Gozatzeko aukera izan al zenuen?

Bai asko. Proba honetan sekula ahaztuko ez zaizkidan esperentzia politak bizitu ditut; txarrak ere bai baina onak asko.

Larritzeko giroa ikusita, jendearen babesarekin gustura egongo zara, ezta?

Izugarritzko animoak ematen dizkizu jendeak. Hasieran jendearen babesa izugarritzkoa izan zen eta indarra ematen dizu. Bukaeran ere izugarri gozatu nuen: ama ikusi nuenean izugarria izan zen... etxe-koak, lagunak... baina batik bat ama ikusi nuenean malkoak begietan zituela... hori kristorena da.

Haiek ere sufririko zuten?

Askok, bai. Jasan ere bai. Horrelako proba bat egiterakoan entrenamendu gogorrek, etxetik kanpora ordu asko eta gauza batzuek ezin nahi bezain besteko denbora eman. Gogorra da.

Txindokiko bolada batean berriro ez duzula zapalduko pentsatzen du.

Aurten gutxi gora behera 180 aldiz igo dut Txindoki. Uste dut bidea begiak itxita ere egingo nukeela. Baina orain erreku-peratze garrara iritsi da; egia esan gogor-gogor eginda nago. Baina horrenbeste kostatuko sasoi punttu hau alferrik galtzen uztea ere lastima izango litzateke. Beste zerbait egin beharko da, baina horrelako astakeriarik behintzat ez. Beste maila bateko zerbait.

Talde lanean lortutako erronka izan dela ere argi geratu da: prestatzailea, etxe-koak, lagunak...

Azken baten, inguruko jendearen babesa ez baldin badaukazu, horrelako istorio bat ezin duzu bakarrik aurrera eraman. Jendea behar da: bai nirekin gora eta behera ibiltzeko, gauzak antolatzeko... alde horretatik eskerrak ematen dizkiet denei, izugarritzko babesa eman didatelako.

Eskualdeko kirolari ugari Zazpi Herrialdeen arteko lehiari

Kirolak » Sukunza leitzarraren laguntzarekin Nafarroak irabazi du Hendaian jokatu den herri kirol Txapelketa.

ERREDAKZIOA

Zazpi Herrialdeen Arteko Herri Kirola Txapelketa jokatu zen larunbatean Hendaian, eta Nafarroako taldeak zazpigarrenez jarraian irabazi zuen. 59 puntu bildu zituzten. Bigarren Gipuzkoa izan zen 50 puntu pilatuta eta hirugarren Lapurdi (47 puntu).

Eskualdeko kirolari ugari egon ziren bertan, Nafarroarekin eta Gipuzkoarekin.

Eneko Garmendia (Baliarrain) hirugarren gelditu zen Lokotx-bil-



Nafarroako taldeak irabazi zuen Txapelketa. HITZA

ketan. Txinga-eroaten, Miguel Anjel Sukunzak (Leitza) lehen postua lortu zuen. Lasto-jasotzen, Pello Argaiak (Zizurkil) bosgarren egin zuen. Arpana-Trontzan Aitor

Roteta alkizarra hirugarren gelditu zen. Aizkoran azkenik, Jexux-mari Mujika (Ibarra) bigarren gelditu zen, Donato Larretxearen atzetik.

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

400 Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANCINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **PLaza**.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Meditazio eta gimnastika taoista, aire akrobazia eta clown ikastaroak Asvinenean. Izen-ematea, www.asvinenea.com.
■ **Berastegi.** Gaztainondo jubilatutako elkarrekin eltzizgo inguruak ezagutzeko egun pasa antolatuta du irailaren 24rako: Valdelana bodega ezagutu eta bazkaria La Cueva jatetxean. Irailaren 19a da izena emateko azken eguna.
■ **Tolosa.** Independentziaren olatu berdea martxan jarri dute Euskal Herrian uda honetan eta Kultur Etxean estreinako bilera egingo dute 20:00etan eskualdean abian jartzeko asmoz. Ekimenaren sustatzaileek Tolosaldeko independentista guztiak gonbidatu dituzte ekitaldi honetara.

■ **Tolosa.** Udal Haur Eskolan matrikula irekita 16tik 30ra Berazuloko egoitzan. Telefono zenbakia: 680 82 65 79.
■ **Tolosa.** Kultur tailerretan matrikulazioa zabalik, Kultur Etxean.
■ **Tolosa.** Hodei Truk haur eta gazteen abesbatzak bertan parte hartzera gonbidatzen ditu haur eta gazte guztiak. Entseguak Topic-eko 4. pisuan 17:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Asturiansko paisaiak



BERASTEGI

Berastegitik argazki hau bidali digute XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Argazki hau Asturias aldeetik bidaltzen dizuegu. Mirador Del Fito izenekotik ateratakoa da». BERASTEGIKO KOADRILA



BERASTEGI

Berastegiko Txeppek eta Mielek argazki hau bidali dute: «Uda honetan Asturias aldean ibili gara. Zoragarria bere netan bertako paisaia. Hona hemen Lago Enolen ateratako argazkia». TXEPE ETA MIEL

A Agurrak



Zorionak!

Maren Ayerza Labayen (Amezketeta). Gaur 2 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak!

Maddi Lopetegui Serrano (Ordizia). Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu asko etxekoan partetik.

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

Eako Argazki Lehiaketan parte hartu duen pertsona bati.

2. Saria

Getariako Olatuaren inguruan bi pertsona bati parte hartu duen pertsona bati.

3. Saria

Gorrotzeko eskemak.

Parte-hartzaile guztiak HITZAko materialarekin.